

Aditz langutzaile batua

ZENBAIT ARGITASUN ETA ARGIBIDE

Azkenik, Euskaltzaindiak ontzat hartu du eta birretsi euskal aditz laguntzaile batua. Oinharri izan ditu horretarako behiala izendatu zuen aditz batzordeak zatika aurkeztu dizkion adizkiak. Niri omen dagokit, izenez bederen batzorde horren buru naizenez gero, gure lanaren zer-nolakoa, luze-laburra eta zertarakoa hitz bitan azaltzea. Hona, bada, ahal bezain laburzki, Euskaltzaindiari eta euskaldun guztiei zor diedana.

Aspaldi esana dut aditza genuela batasun bidean aurki genezakeen behaztoporik bihurriena: hautatu behar, eta nekez hautatuko. Adizki sail baten alde mintzatzen baldin bagara, izan ere, badirudi baztertu eta arbuiatu egiten ditugula, nora ezean, horien kidekoak. Eta baztergarriak oro (berrikeriak, itxuragaiztoko formak eta abar) baztertu ondoan ere, bada beti, edozein har-eman adierazteko, euskal adizki zuzenik aski eta gehiegi. Hiztegi hauzietan, horrelako ugaritasuna ez da maiz asko aberastasuna baizik: *agitu*-ri esate baterako ez dio kalterik egiten aldamenean *gertatu* nahiz *jazo* edukitzeak, ezta *erori*-ri ere *jausi*-ren hurbiltasunak. Gramatika alorrean, ordea, berezko dirudi bata ala bestea, ez bata nahiz bestea, hartu behar genukeela, bata ala bestea utzi bertan behera: *gizon-ei* ala *gizon-ai*, *gizon-eri* ala *gizon-er*, ez guztiak nahaste.

Herabe nuen, beraz, eta duda-mudatan nenbilen batasunerako lehen urratsak egiten eta lurra iraultzen hasi ginen hartan. Gero

ikusi dut, ordea, non-nahi nabari zen eskea eta entzun nondik-nahi zetorren deia, ez baitira guti izan prestatzen ari diren liburu eta idazlanetarako gidaritza bila hurbildu zaizkigunak: nahiago zuten, dirudienez, gidaritza eskasa inolazko gidaritzarik eza baino. Batzorde lagunek, gainera, genuen premia larriaz ongi jabeturik, gogotik hartu zuten egotzi zitzaien eginbidea eta, gogotik hartzeaz gainera, etengabe ihardun dute azken fineraino bukatu arte.

Lerro lerro ipinirik aurkituko duzue hemen euskal aditz laguntzaile osoa (aditz laguntzaile *batez* mintzatuko naiz, bat ez bada ere), ez euskal aditza erabat. Falta direnak nabari dira: ez dago hemen ez *doa* ez *dakar*, ez horien antzeko beste sintetikorik. Beste aldi batetarako utziak izan dira, hain premiako ez genituelakoan. Aditz izenkiak ere ez dira orain agertzen: ez duzue ez *izaten* ez *izaiten*, ez *etorten* ez *etortzen*, ez *egonen* ez *egongo* ikusiko.

Bestalde, berriz, bat delako aditz laguntzaile hori osorik dator, ahalik eta osoen (1). Hor datoz, besteak beste, nik sekula erabili —eta agian sekula erabiliko— ez ditudan formak ere. Batzordekoak ez diraitsuak eta badakite zerbait adizkien maiztasunaz: *zaio*, alegia, maizago agertuko dela nornahiren luma- ezpainen *dakion* baino, eta *badu* areago *badeza* baino. Ez dute haatik, hizkuntza murriztu nahi izan, eta dituen eta izan ditzakeen aberastasunak oro gordetzen saiatu dira, egun edo bihar onerako izan daitezkeelakoan. Behin lanari lotu zaizkionez gero, nahiago izan dute lana burutik burura egin.

Hau ez da irakaspide bat: irakasle ikasientzat egina izan da, ez ikasleentzat. Alfer lana litzateke, beraz, hemen ez dauden argibide bila honera jotzea: irakasleari dagokio forma hauek nola erabili behar diren irakastea, batzuen eta besteen arteko bereizkuntzak adieraztea. Irakasle bakoitzaren eginbidea izango ere da nola —zein ordenatan— eta noraino behar zaizkion adizkiak ikasle sail bakoitzari irakatsi.

Norentzat eta zertarako aritu garen galdatuko didazue, behar bada. Erantzuna eta ihardespena aspaldixko ezaguna bada ere,

(1) Egia esan, mintzalaguna aipatzen duten adizkiak (ez *nauk*, ez *naun*, ez *nauzu etorri*, ez *naiz etorri*-ren ordeko direnean, eta horien gisakoak) ez ditugu oraingoa sartu.

ez da agian alferreko izango zaharrak hemen berritzea. Halaz guztiz ere, izango da, segur aski, entzungor egingo duenik.

Hobeko dut lehenbizi esan zertarako ez den egin. Ez du euskalkiak eta euskalkietako —batez ere, euskalki landuetako— aditza saihesteko eta suntsitzeko asmorik. Nola arbuia dezake Euskaltzaindiak euskaldunena den gauzarik? Euskalkiek badute gure artean, onenean edo gaitzenean ere, luzaroko bizitokirik, ahoz eta izkribuz. Aspaldidanik, ordea, zenbaitek, gero eta gehiagok, nahi du gurean euskalkien bereizkuntzen gainetik eta urrutiago legokeen hizkera bat: nahi du eta behar du. Zatitua eta berezia dagoen etxeak ez omen du iraungo; ezta ere, dirudienez, bihotz-erraietako etendurak eta ezberdintasunak gainditzeko gauza ez den hizkuntzak. Eta gauza ez bada, ez dadila behintzat izan guk, euskaldunok, beharrezko uste genituen eginahalak egin ez ditugulako egin behar genituen orduan.

Batasun hori, behin eta berriro esan da, ez dugu batipat behar literatur hizkuntzan, harako amets ditugun mailako fruituak ekar ditzakeen hartan. Hainbeste eta hainbeste hizkuntza batu eskolan eta eskolatik gora irakasten direnean, ez dira bestek ez bezala mintzatzeko dohain eta ahalmena duten bakanentzat irakasten: guztientzat, hiztun trebe eta dorpeentzat, irakasten dira. Ez elaberri eder eta poema zoragarriak sor ditzaten, baizik eta edozein, egunoroko premien asegarri, prosa hizkera biluzi, zehatz, zorrotz eta zailu baten jabe izan dadin, herriak eta eskualdeak zehar elkarren arteko har-emanetarako mintza eta adierazpide landu eta bateratua da non-nahi ikasten eta irakasten dena. Ez dezala, behinik-behin, inork egiaz esan gure artean gogo lukeen tresna falta zaionik.

Hemen bildurik daudenak, gainera, ez dira atzerrian bilduak, are gutiago inoren amets herrian: direnak, euskalkietarik hartuak dira. Ez oraingo euskalki bakar batetik, jakina, lehenagoko eta egungoen artetik baino. Joera bat hartu behar izan dugu —norakoa den, laster igerriko dio irakurle zuhurrak—, baina ezin bestean, alde guztietara makurtzeko eta hedatzeko genuen gogo biziari gogor eginaz.

Batzar lagunekiko dudan eskerra eta zorra adierazi nahi nituzke, azkenera baino lehen. Gogotik egin dute lan; nork bere iritzien oinharriak ederki miratuak zituen eta, halaz guztiz, ba-

koitzaren uste berezi bezain bidezkoen gaineratik, nagusi agertu da beti batasun egarria.

Orobat diot batzordeari kontseilu eta laguntza eskaini dioten guztiez, eta ez dira ez guti ez nolana hikoak izan. Funtsezko arrazoietan finkaturik nahiago zituzten bideak ez baditugu beti hartu, ez ditugu inolaz ere gutietsi. Aitzitik, egia esan behar bada, gure artean aipatuak eta kontutan hartuak ziren maizenik ordu-rako, gero, gehienek usteari amore emanaz, hobetsi ez bagenituen ere. Gehienek, gainera, nahiago zuten forma bakarra hautatu, ahal zitekeelarik (2).

Ez batzordekoek ez Euskaltzaindiak ez dute uste lagun artean prestatu dugun adizki bilduma honen bitartez aditz laguntzaile batua eskura dugunik, besterik gabe. Batasuna ez da erdietsiko idazleek lehenbizi, hiztunek gero, forma berdinak eta berberak onhartu eta erabiliko dituztenean baizik. Euskaltzaindiak batasun bide bat eskaintzen die euskaldunei, bera ere euskaldun delarik, zernahi bide, denik malkarrena ere, biderik eza baino hobe delakoan. Euskaldunok dugu orain hitza. Mintzabeharra zen, halaz guztiz, Euskaltzaindia, sortu zenean bere bizkar hartu zuen zorra —batasun bidean aitzindari eta gidari izatekoa, alegia— zertxobait kitatzeko. Ez baita artean, eta mende erdia joana dugu, abiatu baizik egiteko horretan.

MITXELENA

Donostian, 1973 abuztuak 10.

(2) Dudazkoenak *-teke-* eta *-kete-* atzizkiak daramazkiten formak dira, berauetan batzordekoen eritzia beste guztietan baino bateragaitzagoak baitziren.